

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Web aplikazio batek modu grafiko eta irisgarrian erakusten ditu Nafarroako aurrekontuak, horien betetze-maila eta zergen erabileraren simulazioa

Webgune hori Gobernu Irekian dago eta, horrela, Nafarroa da aurrekontuaren betetze-mailari buruz hiruhilero informazio publikoa eskaintzen duen lehendabiziko erkidegoa

Astelehena, 2017.eko urtarrilak 23

Nafarroako Gobernuak prentsaurrekoan aurkeztu du gaur Nafarroako Aurrekontu Orokorren webgunea, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen betetze-mailaren errealitatea herritarrek erraz ulertzeko moduan kontsultatzeko moduan diseinatuta dagoena, bai diru-sarrereren bai gastuen gaineko informazioarekin, eta zergen bitartez bildutako dirua zertarako erabiltzen den ere azaltzen duena.

Era horretan, Nafarroa da herritarrei aurrekontuaren betetze-mailari buruzko datuen eguneraketa hiruhilero eskaintzen diena.

Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia kontseilari Maria Jose Beaumont andreak azaldu duenez, "gaur aurkeztu den aplikazioa Gobernuak benetako gardentasunaren alde egiten duen apustuaren adibide argia da".

Web hori software librez garatuta dago, irisgarritasun unibertsaleko araudia betez egin da diseinua, eta euskaraz zein gazteleraz aurkeztu da informazioa.

Beaumonten esanetan, Gobernuak "propaganda hutsa besterik ez diren jarduketa eta keinuak gairatzeko" egiten duen apustua erakusle da, "herritarrei datu irisgarri eta ulergarriak erakusten eta eskaintzen dizkiena eta, era horretan, datuok ezagututa, herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzen duena gai publikoen gaineko erabakiak hartzerakoan".

Aplikazio horri esker, herritarrek beren zergekin emandako dirua Nafarroako Gobernuak bere politiketan eta ematen dituen zerbitzuetan nola banatzen duen uler dezake erabiltzaileak.

Horretarako, simulatzaile bat dauka, diru-sarrereren zifra pertsonalizatu batetik abiatuta, azkenekoz ordaindutako zergen estimazio bat eta ordaindutako kopurua aurrekontua osatzen duten politika eta programetan nola banatzen den erakusten duena.

Aurrekontuaren zuzendari nagusi Begoña Urrutiak nabarmendu duenez, informazio hori dagoeneko argitaratzen zen Ogasunaren webgunean eta Open Datari.

"Baina tresna honekin, nolabait, bistaratu egiten da, herritarrentzako irisgarriago eta ulergarriago eginez". Horretarako, aurrekontuekin eta kontabilitatearekin lotutako kontzeptuen glosarioa ere sartu da, ezagutza espezializaturik ez duen jendeak ere informazioa erraz uler dezan.

Bestalde, webgunea interesgarria izan daiteke arlo horretan ezagutza handiagoa duten pertsonentzat ere, datuak esportatzeko aukera ematen baitu gero horiekin lan egiteko, bai eta grafikoak esportatzeko aukera ere, horiek blog batean edo webgune batean sartzeko.

Zentzu horretan, gogorarazi behar da hilerro zintzilikatzen dela aurrekontuaren betetze-mailari buruzko Ogasunaren webguneko informazioa. Horrek horrela izaten jarraituko du; alde bakarra izango da gaur aurkezten den aurrekontuen webguneko informazioa hiruhilekoa izango dela funtzionaltasun arrazoiengatik, informazio tekniko hori aurrekontuen webgunearen formatu bisual eta intuitibora egokitu ahal izateko.

Intuitiboa eta ulerterra

Aldez aurretik esperientziarik ez duen jendeak ulertzeko nahikoa intuitiboa den itxuraz gain, webguneak aurrekontuaren elementu bakoitzaren xehetasunetan sakontzeko aukera ere ematen dien horretarako interesa dutenei.

Programak politiken eta gastu-arloen arabera taldekatuta ere erakusten ditu, hobeto ulertzeko helburuz, eta jardueraren sostengu diren diru-sarrerak ere jasotzen ditu.

Halaber, 2011tik 2017ra arteko ekitaldietako Aurrekontuak xehetasunez ezagutzeko aukera ematen du, bai eta aurrekontuen benetako betetze-maila ere, datuen hiruhileko eguneraketarekin, eta portzentajeak eskura daitezke eta informazioa jaitsi, ekitaldien arteko alderaketak egin ahal izateko.

Eta bistaratzeak Twitter, Facebook eta Google Plus sare sozialetan partekatzeko aukera ematen du.

Grafikoei dagokienez, nabarmentzekoa da laukitxoaren tamaina proportzionala dela gastu-portzentajearekiko.

Eta horien artean bakarrik (adibidez, Osasunaren laukitxoa da aurrekontuaren portzentaje handiena okupatzen duena eta, beraz, tamaina handienekoa), baizik eta baita urte batekoak beste urte batekoekiko ere. Adibidez, 2016ko eta 2017ko laukitxoak alderatuz gero, ikus daiteke aldatu egiten dela koadro osoaren tamaina, aurrekontua ere handitu egiten delako.

2016ko maiatzean jarri zen abian proiektua, eta elkarrekin parte hartu dute proiektu hori garatzen Presidentzia, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuak, Presidentziako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren eta Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez; eta Ogasun eta Finantza Politika Departamentuak, Nafarroako Aurrekontu eta Zerga-ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

Gainera, Civio Fundazio Hiritarraren laguntza teknikoa izan du proiektuak; fundazio hori da laguntza kontratuaren esleipenduna. Kontratu hori 2016ko irailaren 23an formalizatu zen, Nafarroako Kontratazio Atarian publikitadedun prozedura negoziatu bidez egin ondoren.

Gaur egun, bost bakarrik dira, Nafarroarekin batera, beren aurrekontuan ikusgarri aurkezten dituzten Autonomia Erkidegoak. 2016ko martxora arte, Euskadi eta Aragoi; harrezkero, baita Balear Uharteak eta Murtzia ere.

Eta, 2017ko urtarrilaz geroztik, Nafarroa eta Kanariak gehitu zaizkie. Horietako bik bakarrik erakusten dute urtez urteko aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldia itxi ondoren (Euskadik 2014ra arte eta Aragoik 2015era arte); beraz, Nafarroa da aurrekontuaren betetze-mailari buruzko datuak hiruhilero eguneratuta erakusten dituen bakarra.

Amaitzeko, Beaumont andreak esan du aplikazio hori "mugarri garrantzitsua dela herritarrek informazio publikoa jasotzeko duten eskubideari dagokionez, herritarrei informazio argia, irisgarria eta ulergarria eskaintzen eta erakusten dielako, eta gardentasun formala haietako bakoitzarengan eragiten duen benetako balio eraingarri bilakatzen duela".